

Taugres Baskonia
Europako Koparen bila

TAUGRESEK, RIVAS ETA GREEN GABE, GAUR JOKATUKO DU BELGRADEN PARTIZANEN AURKA

Hirugarren urratsa ematera

Berriz ere hil edo biziko partidua jokatuko du Taugresen Europako Kopan. Rivas eta Greenen lesioen ondoren, asko ahuldu da arabarren taulapeko jokoa. Belgraden garaipena lortzea ezinbestekoa da Comasen taldearentzat (ETB1-20.00).

Jon Olaskoaga / Donostia

EUROPAKO KOPAN etxetik kanpo lortzen diren garaipenek balio bikoitza dute. Beraz, garaipen hori lortzeko helburuarekin bidaia egin zuten atzo Taugresen kideek Belgraderantz. Orain zazpi egun lortu zuten arabarrek etxetik kanpoko lehen garaipena Herzliyyan (Israel), eta gaur emaitza positiboa lortuz gero, urrats handia emango dute finalerdiei begira.

Gasteiztarrek bi partidu irabazi eta beste horrenbeste galdu dituzte orain arte. Hortaz, gaurko neurketak berdinketa hori apurtuko du. Taugresen garaipena lortzen badu, hirugarren urratsa emango du. Sunair Oostende eta Zalguirisen aurkako porroten ondoren, sailkapena urrun zegoela zirudien. Hala ere, multzoko sailkapena oso parekatuta dago. Zalguiris liderra alde batera utzita, Limoges, Sunair eta Taugres berdinduta daude bi garaipenekin.

Ez da lan erraza izango gaur Partizanen aurka irabaztea. Jugoslaviako taldeak oso indartsuak dira etxean jokatzen dutenean. Gainera, Ramon Rivasek eta Kenny Greenek bizkarreko arazoak dituzte oraindik. Ondorioz, bi gizon garrantzitsu hauek ezingo dute jokatu. Hori dela eta, Taugresen taulapeko jokoa indar handia galdu du. Estatu Batuetakoak eta Puerto Ricokoak bikote beldurgarria osatzen dute Europako Kopan eta eragozpen honi aurre egiteko Manel Comasek bereziki mentalizatu beharko ditu jokalariek. Green da arabarren erasotzaile onena eta Rivasek defentsan egiten duen lana izugarria da.

Israelen joan den astean bi baja hauekin jokatu zuen Taugresen eta garaipena lortu zuen. Bnei Herzliyyaren aurka atzerritar bakarrarekin jokatu zuten arabarrek eta, partidu oso serioa egin eta gero, 70-84 nagusitu ziren. Israelen pibot titularrak Miguel Angel Reyes eta Jorge Garbajosa izan ziren. Biak bikain aritu ziren eta, garrantzitsuen dena, normalean aulkian gertzen diren pibotak ohartu ziren erantzukizun handia dutela taldearen jokoan. Reyesek hamasei puntu egin zituen eta Garbajosak zortzi. Gainera, errebotte garrantzitsuak eskuratu zituzten. Partiduaren amaieran Manel Comasek bi pibotak eta Cazorla zoriondu zituen.

Partizanen aurka berriz ere Garbajosa eta Reyes bosteko titularrean ariko dira. Beraiekin batera Ferran Lopez, Nicola eta Perasovic kantxaratuko ditu Co-



Marcelo Nicola izan zen Taugresen saskiratzaile onena larunbatean, Unicajaren aurka jokatutako partiduan.

DAVID AGUILAR / EFE

masek. Azken bi hauek izango dute puntuak lortzeko ardura. Nicola izan zen saskiratzaile onena larunbatean Araba kiroldegian Unicajaren aurka jokatutako partiduan eta Perasovicek 26 puntu egin zizkion Bnei Herzliyyari.

Velimir Perasovicentzat partidu berezia izango da gaur Belgraden jokatuko duena. 1992an Jugoslavian gerra piztu zenetik ez du Serbian partidurik jokatu Perasovicek. Gainera, Serbiako

taldeak nazioarteko lehiaketetara itzuli direnetik, Belgraden jokatuko duen lehenengo kroaziarrak izango da. Hasiera batean Serbiako hiriburuan ez jokatzeke asmoa azaldu zuen Perasovicek, baina Green eta Rivasen lesioen ondoren, ez du beste erremediorik. Kroaziarrak presio handia jasango du partidu guztian zehar. Markaketa estua izateaz gainera, baloia ukitzen duen aldi bakoitzean Partizanen jarraitzaileek eskainiko dioten

txistu sorta ikaragarria izango da. Hala ere, Perasovicek esperientzia handia du eta mota honetako norgehiagoketan aritzeko lasaitasuna baduela erakutsi du askotan.

Lehenengo presioa atzo bertan jasan zuen kroaziarrak. Belgradeko aireportura iritsi zenean, Jugoslaviako Poliziak galdera mordera egin zion eta behin eta berriz aztertu zuen bere bisa. Azkenean, orubete iraun zuten gestioen ondoren, Perasovicek hotelerako bidea hartu zuen taldekideekin batera.

Salaren aukera

DAVID SALAK Belgraderako hegazkina hartu zuen atzo eta gaur Manel Comasen esanetara egongo da jokatzeke prest. Larunbatean Unicajaren aurka bost minutu jokatu zituen. Europako Kopan arabarrek dituzten bajak ikusirik, litekeena da baseak minutu batzuk jokatzea Ferran Lopez atsedean emateko.

Hala ere, benetan bitxia da base kataluniarrarekin azken egunetan gertatzen ari dena. Hasieran ez zegoen Unicajaren aurka jokatzeke deialdian. Baina larunbat goizean partidura joateko adierazi zioten.

Aulkian eseri eta jokatuko ez zuela zirudienean, Comasek kantxaratu egin zuen. Belgradera joango zenik ere ez zekien David Salak. Igande goizean Gasteizen geratuko zela esan zioten, baina arratsaldean pasaporte prestatzeko deitu zioten, Belgraderako hegazkina hartu behar zuen eta.

Sala ez dago sasoi onenean, izandako lesioaren ondoren behar beste minutu jokatu ez dituelako. Gainera, Manresan taldearen kontzentrazioa utzi eta gero, Taugresen eta Salaren arteko auzia Lan Magistraturan dago.

Partizanek partidu bakarra

irabazi du. Jugoslaviako Liga A Multzoko liderra da Partizan, eta nahiko erraz gainera. Europako Kopan, ordea, lehiaketa kaskarra egiten ari dira Belgradekoak. Jugoslaviatik urrun ez dute partidu bat bera ere irabazi, Limoges aurka eta Sunairren aurka makurtu eta gero. Belgraden Zalguirisen aurka bereratzki puntuz galdu zuten (90-99). Irabazi duten partidu bakarra Bnei Herzliyyaren aurkako izan da. Jugoslaviarrak 98-83 nagusitu ziren. Era horretan, Belgradekoak multzoko azkeneko postuan sailkatuta daude, israeldarrekin berdinduta. X

Xakea

Illescas eta Ljubojevic VI. Iruñeko Hiria Txapelketako izarrak

Felix Izeta izango da euskaldun bakarra Espainiako jokalaririk onenen ondoren

Alberto Barandiaran / Iruñea

MIGUEL ILLESCAS eta Ljubomir Ljubojevic izango dira hiru laren 27an hasiko den VI. Iruñeko Hiria Nazioarteko Xake Txapelketako izarrak. Oberena taldeak atzertu eta Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak beste bestu duten txapelketa honetara Espainiako jokalaririk onenak bilduko dira, eta gaur egungo jubencil mailako Munduko eta Europako txapelketak izango dira: Roman Slobodjan alemaniarra eta Vadim Zviaginsev errusiarrak. Felix Izeta zestoarra izango da euskaldun bakarra.

2.600 ELOtik gora daude lau jokalaririk izango dira Iruñean, horien buruan Miguel Illescas (2.620 ELO) Mais Handia. Espainiako jokalaririk onena 1987az geroztik Illescasen urtea izan da hain geldialdi baten ondoren lortu baitu munduko zerrendaren gora egitea. Egun, urtarikaren hasieran aterako den sailkapen berriaren zain, hamaikabost onenen artean egon daitekeela esan zuen Jesus De Villa torneoaren arduradun teknikoak. Aurten erakutsitako mailari eutsiz gero, munduko txapelketarako kandidatek datuen txapelketan sar daitezke.

Ljubomir Ljubojevic (2.600 ELO) da beste izarrak. 40 urteko jugoslaviar honek urteak daramatza punta-puntuko takoen artean, eta Kasparov eta Karpoven aurrean gelditu da behin baino gehiagotan. Ilkusgarria oso, orijinala eta oso abila taktikoki, baina irregularra. Hori dela eta, ohi ditu lortzen bere jokoa merezi dituen emaitzak. Julio Granda peruarra (2.605 ELO) eta Yuri Shulman bielorrusiarra izango dira atzerritarretorriko diren beste bi jokalariek, eta Jordi Magem, Pablo Sansegundo eta Jesus De Villa espainiarrek osatuko dute hamarkotea. Lehiaketaren zozketa hilaren 26an izango da, eta partidak abenduaren 27tik urtarrilaren 5era bitarte jokatuko direnak Iruña Park hotelean.

Txapelketa nagusi honen ondoren VI. Txapelketa Iruñeko ere jokatuko da egun hauetan, Nafarroako jokalaririk onenen —Unai Garbisu txapelketa pelduna tartean— partiduetzarekin. Txapelketa honetarako maisu internazionalerako normak eskura daitezke, eta horixe izango da Garbisu jokalaririk gaztearen helburua. X